



BATASUN SINDIKALA, LAN UZTE OROKORRA

Badirudi Osakidetzak jarrera gogortu duela. Administrazio-kontseiluak onartu egin du SMERekin 2007, 2008 eta 2009rako lortutako akordioa, eta honela beste urrats eman dute Osakidetzako ordezkarezekin negoziatu nahi izan ez dutena dekretuz inposatzeko.

Inposaketa hutsaren aurrean gaude. Hiru urterako inposaketa, gutxiengoan dagoen sindikatu batekin itaundutako lan baldintzen inposaketa. Sindikatu honek ez dauka mediku guztien ordezkaritza; baina akordioa sinatuz gero, medikuen lan baldintzak baloratu ez ezik, gainontzeko kolektiboena ere baloratuko dituzte.

Honela, SMEkoek euren buruak nagusiak izendatzeaz gain, medikuen kolektiboa kolektibo produktibo bakarra egitearen jarrera harroputza euren gain hartu dute. Medikuen kolektiboak bere gain hartzen al du jarrera hau?

Eta guzti hau Administrazioak bere erabakiak dekretu-legez inposatzeko gaitasuna duelako, ordezkartzaren %90ak aldarrikatzen dituen eskaerak arbuatuz. Eskaera hauek langileen gehiengoaren oniritzia dute, egun arte Inclanen Sailak eta Osakidetzako arduradunen aurka egin dituzten mobilizazioek izan duten babesak garbi eta argi uzten duen moduan.

Mobilizaziook gure argudiorik hoberenak dira eta urduri jarri ditu Giza Baliabideetako zuzendari den J.A.Blancok langileei igorritako eskutitzean adierazten denez; nahasketa eta mobilizazioa ahultzeko asmoz igorri die eskutitza.

Eskutitzean, J.A.Blancok desafio botatzen digu gure errefusaren arrazoiak garbi eta argi azaltzeko; eta guk ez dugu eragozpenik erantzuteko:

- Lehenik eta behin, produktibitate-osagarri berria arbuatzen dugu, zeren 9etan sartu eta 13:30 edo 14:00etan ateratzen diren mediku guzti horiek arratsaldean pribatura joateko, nabarituko dute euren soldatak 10.000 eta 12.000 eurotan handitzen dela;honek, mediku kolektiboen jarduera publikoan eta pribatuan bateragarri egiteaz gain, jarduera primatzen du; eksklusibotasun osagarriak osagarritasun hori ekidin nahi zuenean.
- Bigarrenik, langileen kopuruaren gehitzeari buruzko eskaintzak ez duelako eskaintza edo kontra-eskaintza zehatzik egiten eta aztertu egingo dela baino ez duelako esaten. Noiz aztertuko da? Urteak daramatzagunean azterketa hau aldarrikatzen. Eskaera honetan, beste batzuetan bezalaxe, normalena litzateke Osakidetzako zuzendaritzak eskaintza zehatzak egitea negoziatu ahal izateko eta ez zehaztasunik gabeko hitzak botatzea.
- Eta hirugarrenik, egiten dituen eskaintza zehatzak onartezinak direlako, hau da, SMERekin lortutako akordioa onartzea hain zuzen ere. Nola esan dezakete %90ak aldarrikapenei uko egitea gure eskaeren kontra doan akordio baten alde egiteko. Zergatik onartu behar dugu karrera profesionalak %8an eraginizateamedikuentzat, gainontzekoentzat %4 eta %6an geldituko denean, sektorean ematen diren desberdintasun eta diskriminazioak areagotuko direlarik? Zergatik onartu behar behin-behinekoak at geratzea? Zergatik onartu behar balorazioa erdi mailako agintarien eskutan izatea eta ez irizpide objektiboetan oinarrituta?

Hau dela-eta, gure lan baldintzak duintzea eta urtetan Osakidetzako zuzendaritzak eta Lakuako Administrazioak eragindako kalteari amaiera ematea helburu duten aldarrikapenak zoko batean utzi nahi duen akordioa errefusatzeko hamaika arrazoi ditugu.

Azken asteotan egindako mobilizazioak eta Osakidetzak bere jarrera antidemokratikoa berriz pentsatzeko ezezko borobilak eraman gaituzte urrats berria ematera. Hau dela bide, hilaren 15ean, 8etatik 11ak bitarte, hiru ordu lan-etenaldirako deia. Lan-etenaldia eraginkorra izan dadin masiboa izan behar du.

Ilido honetan dihardu ESK-k, batasun sindikala lortu ondoren ez dago eragozpenik langile guztiek mobilizazioan parte har dezaten. planteatzen ditugun aldarrikapenak azken hiru urtetan sindikatuak planteatu dizkiegunak dira, eta honako helburuak dituzte:

- Lan erritmo eta zamekin amaitzea, behar diren pertsonak hartuz.
- Finko eta behin-behinekoen artean ematen diren desberdintasunekin bukatzea, bai eskubidetan bai esparru ekonomikoan.
- Txanda kontratua estatutarioei hedatzea. Hedatzea hau, estatutarioen erretiro partzialerako eskubidea ematen duen Estatutu Markoaren artikulua erabakia Osakidetzak har zezan baino ez da falta. Onartezina da eskubide hau izanik, Osakidetzak mantentzea estatutario eta laboralen arteko diskriminazioa (laboralek 2005etik dute txanda kontratua).
- Produktibitate-osagarri berri kolektibo guztiei zabaltzea, onartezina baita Osakidetzak nahi izatea

medikuek soldata “justu”ago bat izatea guztien bizkarretik. Lan-taldearena, txantxa ote da?

- Irizpide objektiboak izango dituen garapen profesionala ezartzea, eta dezala neurtzeko neurri desberdinik. Onartezina da maila bereko mediku eta gainontzeko arteko portzentaje desberdintasunak, onartezina den bezala besteek medikuek baino urte gehiago behar izatea karrera profesionalera heltzeko. Irizpideak objektiboak izan behar badituzte, onartezina da behin-behinekoak garapen honetatik at geratzea, zeren lan bera eginaz gutxiago kobratuko luketelako.
- Zerbitzu-beharraren izenaz azken urteotan egiten ari diren kontratazioak lanpostu bezala estrukturatu eta hornitu. Benetako beharra eta iraunkorrak dira, eta Osakidetzak izan duen hazkunde logikoari erantzuten diote. Kontratazioak lanpostutzat hartu eta bitarteko izaera bihurtzea kontratazio horien prekarietatearekin amaituko luke eta profesionalen ihesa ekidin eta behar direnak erakarriko lukeen LEP baten aurre-urratsa litzateke.

Ez da batere erraza zortzi sindikatuen arteko akordio hau lortzea, zaila den bezala Osakidetzak konbentzitzea garaia heldu dela seriotasunaz eta heldutasunaz negoziatzeko, baina batasun sindikalak ematen duen bermeak eta mobilizazioetan langileok aditzera ematen dugun tinkotasunak Osakidetzari pentsaraziko dio eta negoziatioari helduko dio. Bestela, mobilizazioak areagotu eta gogortuko ditugu.

AZAROAK 15, LAN ETENALDIAK 8etatik 11ak ARTE PARTE HARTU ASANBLADETAN

